

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

11/11/4 | 352

🌀	Antton Izagirre eta May Gorostiaga
🌀	Errenta aitortpena euskaraz
🌀	Hezkuntza eta errealitate linguistiko azterketak
🌀	Koxkl: Kaltzioaren inguruan
🌀	Ipar Handirako bidai bat

Kimeztza Martinez

“Nahi nuena
ez nuelako
aurkitzen hasi
nintzen
tablak egiten”



Jaiotzen diren une beretik zaindu

Jatorria eta Kalitate bermea. zuretzat eta ingurukoentzat ona zeren badakizulako.

Hoberenak bakarrik aukeratu

Tolosako Babarruna
Alubia de Tolosa
Tolosako Babarruna Elkarte
S.Esteban auzoa, 29 - Tolosa
Tlf.: 943 650 253

Eldu heinean, banan bana bildu.

SUPER EKO Oinezkoen eremua
Erosketak etxera eramateko zerbitzua
SUPERMERKATUA

etorri, gure produktu berriak ezagutuko dituzu

Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa

NUTRIZIO AHOLKULARITZA

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERREZIKETA
ARIKETA FISIKOA
HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA.
5 B - 2ª ESKUBIA
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888

AMAIA ETXETXIPIA
BIOLOGIAN lizentziatua eta *GIZA ELIKADURA ETA DIETETIKAN* Diplomatua

CITROËN GRAND C4 PICASSO

TEKNOLOGIA EZ DA AMESTEKO. EDUKITZEKO BAIZIK.

FIRST VTi: 14.540€ TIK

ARE EGOKITUA
CROCHINGALIA
BAS, ATZERRAKO ISPELIA ETA ASIR
BITEIRA ALDARAKUETARRAKO LAGUNTZA
DIRAKIZIO SISTEMA LAGUNGARRIA
ABANDURIA ERREGULATZALEA ETA HUGATZALEA
ISPELI ELEKTRIKO TERMOKA
ANGULU HANDIKO HAZITARRAKO PARRORAMKA
ANAKATZEKO FRENO ELEKTRIKOA
6 BIZKORRALDUN IRANDA CO MP3

TEKNOLOGIA EZ DA AMESTEKO. EDUKITZEKO BAIZIK.
CITROËN. MONOBOLUHEZAN LEHENA

"Hau izango berru... besta hau izango berru..." Zergatik berru izango berru? Berru den perfektua ez berru den berru? Desio duzun teknologia guztia eraman ezazu, modurik erosoaren eta Grand C4 Picasso berruak: zure berruak berru izango berruak.

KONTSUMO MISTOA (L/100Km) / CO2 EMSIOA (g/Km): GRAND C4 PICASSO: 4,9 - 7,0 / 129-177

[1] 2011ko abuztuaren 31ko kalkulazioak. *Gomendatutako Grand C4 Picasso VTi 120 First berruak, garbitzaile eta beharrezko berruak 5.000€-ko kapital erantsarekin. Berruak eta berruak berruak 36 hilabete inguruko berruak. Hilabete berruak berruak PSA Finantza berruak. Berruak ez berruak. www.citroen.es orrian berruak berruak. Modurik, Citroen C4 Exclusive berruak.

CITROËN
CREATIVE TECHNOLOGIE

IREROI, S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIAGUNEA Z/G TEL: 943 65 18 42 ANOETA/TOLOSA

galtzaundi
Euskara Taldea

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia, Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
Diseinua: Zigor Agirrezabala
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundi ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Erreportaia: 37.193 kultur dokumentu mailegatzeko prest

Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatu berri dela eta Tolosako Udal Liburutegia gertuagotik ezagutzeko bideari ekin dio Galtzaundik. Aitzakia hartuta, liburutegia maileguaz haratago ikusteko bidea, liburutegian lana gertuagotik behatzeko aukera eta baita irakurle profila arakatze zita ere bada Susana Larren gidaritzarekin egindakoa.

8-11. orrialdeak

26 urte ditu Kimetz Martinezek. Graffiti-a, skate-a, surf-a,... gustuko ditu. Surfeatzeko eta patinatzeo tabla bereziak gustatzen zaizkio, ordea, 60. hamarkadan ibiltzen zirenak, eta dendetan berak nahi bezalakoak ez aurkitzean, tablak egiten hasi zen, *shapea*-tzen.

Kimetz Martinez 14-16. orrialdeak

	Irtziaren leihoa: Antton Izagirre eta May Gorostiaga	4-5
	Normalizazioa: Errenta aitortpena euskaraz	6-7
	Eskualdeko albistea: Hezkuntza eta errealitate linguistiko azterketak	12-13
	Koxkl: Kaltzioaren inguruan	17
	Bidaia: Ipar Handirako bidai bat	18-19

TOLOSAKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jasotzen du.

Gora Euskal Herria



Antton Izagirre
Irakaslea

4 Urteak luze joan dira. Azken bi urteak ere luzeak izan dira. Urte luzetako lana segundo gutxi batzuetan gure aurrean hegikaturik ikusten dugunean pentsamenduak eta sentsazioak nahastuak trumilka kolpatzen zaizkigu eta zer pentsa ez dakigula geratzen gara. Halako efektua izan du herritar askorengan Donostian egin berri den Nazioarteko Konferentziak eta horren lehen ondorioak. Orain urte batzuk inor gutxik pentsa zezakeen azken astetan Euskal Herrian irudikatu den eszenategi berriak mundu mailan izan duen oihartzuna izan zezakeenik. Mundu osoan gatazka politikoen konponketan adituak eta arituak diren pertsonalitate ezagunek Donostian idatzirik utzi duten ebazpenak erabateko aitortpena egiten dio Euskal Herriari eta bizi duen gatazka politikoa bideratzeko bide-orria abian jarri dute.

Aieteko paraje zoragarrian jaso genituen irudiak munduko beste edozein estatu edo nazioen pare jarri dute gure Herria eta hala hedatu

da lau haizetara. Ekimenak berak estatu trataera izan du eta mahai gainean jarri duten ebazpenak, herritarren esku utzi du Euskal Herriak bere geroa eta etorkizuna eraikitzeke duen eskubidea eta zilegitasuna.

Hedabide eta politikari askori entzunda, bazurdiaren ETari borroka armatua behin betiko uzteko egin-dako eskaerak bete behar zuela egitasmo osoa. Behin erakunde armatuak berari zegokiona hitzez hitz eta komarrik aldatu gabe bete eta gero, bat baino gehiago hasia da txistua jo eta gorantz begira bere konpromiso eta erantzukizunari ihes egin nahian.

Aieteko ebazpenak isplu aurrean jarri ditu alderdi politikoak, instituzioak eta eragile ugari. Bat baino gehiago aurrez iragarritako gidoiaren jakitun izan arren, pausoa aldatuta eta biluzik, larru gorritan erretratatu da. Patxi Lopez bera, Euskadiko lehendakaria omen dena, ia-ia ihesean harrapatu du, gertatzen ari zenaz ohartu nahi ez balu bezala, milaka kilometrotara eta trenean abiadura bizian. Egiguren, bere alderdiko lehendakaria, lotsatzeraino egin du ridikulua. Izan zezakeen sinesgarritasuna galduta, orain berriz lidergoa berreskuratu nahi omen du. EAJtako buruei berriz, festarako gorpuzta jarri diete gertakizunetik eta xanpaina edateari eman diote. Estatu izaera duten

alderdi politikoek zuhurtziaz hitz egin dute. Ezker soberanistaren eremuko alderdiek bide-orria hasi besterik ez dugula egin eta begirada altxa eta hurrengo urratsei begira jarri dira.

Herritar gehiengoaren begirada eta esanetan poza eta itxaropena nabaria da. Harrotasun puntu batez esanenezake irabazle eta galtzailerik gabeko soluziobide demokratikorako hazia erein dela Aieten. Akordio demokratikoa lortzeko aukera guztiak zabal-zabalik dudelara. Aukera politiko guztiak gauzagarri izan daitezzen apustu egin dutela eta etorkizuna erabakitzeke eskubidea herritarren borondatez egin behar dela.

Begi-bistakoa da proposamena ez dela denengustukoa izan. Batzuk, bost puntuetatik lehenengoa besterik ez dute ikusi nahi, baina zailtasunak zailtasun herri honek ez du aukera hau galtzen utziko. Euskal Herria trantsizio politiko berri bat aldarrikatzen ari da eta ziur gaude nahiko heldutasun eta kemen badagoela euskal gizartearen indarrak aktibaturik mantentzeko eta Aieten abian jarri zen konpromisoa azken lerroetaraino garatzeko. Hala egingo ez bagenu huts egingo genioke herriari eta belaunaldi berriei. Zauriak eta minak handiak dira. Sendatu behar dira. Baina etorkizuneari errepika ez dadin erabaki politikoak behar dira. ©

Gaztaro: gaizte ta harro

"Gure garaian gauzak ezberdinak ziren. Gure gaztaroan balio pilo bat genuen. Mundua aldatzeko asmoarekin elkartzen ginen. Geneukana denontzat zen. Ekologiaz, politikaz, kulturaz... hitz egiten genuen. Gu ere kolokatzen ginen baina ondo pasatzeko, orain oso ezberdina da. Guk gure izerdiarekin lortu dugu daukaguna, gaurko gazteek...". Zenbat aldiz iritsi zaizkigu horrelako konparaketak?

Argi dago horrelako iriztiak eta konparaketak egiten dituztenak ez direla gazteak. Eta horietako batzuk ez dira inoiz gazteak izan.

Hiztegia hartzen badugu definizio hau irakurri dezakegu: "Gaztaro: haurtzaroren eta adin helduaren arteko bizitza-zatia".

Instituzioetan eta banketxeetan ere mugatzen dute gure gaztetasuna: adin epe konkretu bat dago Gazte-Txartelaren onuzer disfrutatzeke, adibidez.

Badago adin konkretu bat gazte izateke? Ez nago ados!

Gaztaroa sentitu egiten da, barruan daukagun zerbait da. Zergatik utzi behar dugu haurtzaroko gazteak izateke?

Eta zergatik abandonatu behar dugu gure gaztetasuna heldua izateke?

Heldua naiz, bai. Baina heldua baino lehenago

gaztea eta haurra ere bainaiz.

Beraz ez dut inoiz esango gure gaztaroa hobeto zegoela edo gaurko gazteek baliorik ez dutela. Nire ustez ez daude gaztaro ezberdinak, bat bakarrik dago. Sentitu ala ez, hor dago gakoa.

Adina beste asunto bat da. Batzuk hamasei urterekin helduak bezala bizi dira eta beste batzuk ehun urterekin bere barruko energia kanporatzen dute ingurukoak kontagiatzeko. Hauak bai gazteak!

Gaztetxeetan (gazte etxeetan, ez ahaztu) berrogei eta piko urteko gazteek hemezortzi urtekoekin batera jarraitzen dute kaña ematen. Eta jarraituko dute, noski. Eta baita auzo elkarteetan, kolektiboetan eta gazte gizarteetan ere.

Zure gaztaroa galdu baduzu, jarraitu kritikatzeko, gazteok errespetatuko zaitugu.

Eta gaztetasunaren tau-padak sentitzen badituzu bihotzean, jarraitu bizirik, gure gizartearen ere bizirik haziko delako.

Eta ez kezkatu gure lumarik eijerrena erortzen bada... Gaztaroan luma guztiak ederrak dira eta!

Gazte naiz eta harro nago!

Ze letxe!!! Bihar Kutxara joango naiz Gazte-Txartela eskatzera...

Ea nork esaten didan gaztea ez naizela! ©



May Gorostiaga
Teatreroa (Intujai Teatro, Amaroako Antzerki Artisauak...)

5 "Gaur egungo gazteek ez dute balorerik. Ez zaie ezer inporta. Dena berdin zaie. Ez dute errespeturik helduekiko. Ez dute baloratzen daukatena. Beti drogekin kolokatuta dabilta, errealitateke deskonektatuta. Ez die ezerk kezkatzen. Oso berekoiak dira. Denetarik dute eta horregatik ez dute helbururik..." Zenbat aldiz entzuten dira horrelako baieztapenak?

Errenta aitortpena euskaraz 5.000 baietz? Goran ko joeran lanean jarraitu behar

Udaberriaren etorrerarekin batera Tolosaldeko hainbat eta hainbat udal, erakunde eta elkartek errenta aitortpena euskaraz egiteko deia egin zieten eskualdeko bizilagunei. Baita apustua luzatu ere: 5.000 baietz. Egun datuak eskuartean hartuta irakurketa gazi-gozoa egiteko beta heldu da.

Erredakzioa

4.546 izan dira 2010. urteko errenta aitortpena euskaraz egindako herritarrak. Apustua betetzeko beraz, 454 falta izan dira. Hala ere, aurreko urteetako datuekin alderatuz gero, goraka doan joera da. 2008ko errenta aitortpen kanpaina 3.213 pertsonen eta 2009an 3.838 pertsonen baietz esan zioten tramite fiskal hau euskaraz egiteari. Azken bi urteotan beraz 1.333 pertsona gehiago egin dute errenta aitortpena euskaraz.

Zalantzarik gabe, Kontseiluak, Galtzaundi Euskara Taldeak, Ibarra, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo Udalek eta

UEMAko kide diren Tolosaldeko 14 udalerrik (Aduna, Anoeta, Alegia, Altzo, Amezketak, Baliarrain, Belauntza, Elduain, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama, Orendain eta Orexa) martxan jarritako kanpainak erronka bete ez, baina emaitza positiboak lortu ditu, sensibilizazioaren ildoan hazia lantzen jarraituz.

Sailkapen postuak

Datuen portzentajeak aztertuta Orexa hobekien sailkatuta agertzen da, ia errenta aitortpenen erdia euskaraz eginda (%46,15). Hasierako hamar postuetan Lizartza (%35),

Zozketa

Ain-1

Saridunak

Didier Dupont (Uztaritze)

Inaxio Goenaga Iturburu (Ibarra)



Amezketak (%34,93), Altzo (%34,63), Baliarrain (%32,78), Albiztur (%31,35), Leaburu-Txarama (%30,37), Abaltzisketa (%30,12), Orendain (%29,88) eta Alkiza (%29,68) ageri dira.

Zerrendan azken postuan ordea Villabona azaltzen da, errenta aitortpena egindako biztanleen %13,61ak baino ez du euskaraz burutu. Azken hamar postuetan beraz portzentajerik baxuenak eskuratutako herriak topa daitezke: Tolosa (%14,23), Larraul (%14,53), Irura (%15,80), Zizurkil (%15,88), Ibarra (%17,18), Hernialde (%22,22), Anoeta (%22,89), Belauntza (%23,03), Ikaztegieta (%24,06) eta Aduna (%25,20).

Berastegi, Elduain, Alegia, Berrobi, Bidegoian eta Astesuko herriak ordea %29,50 eta %25,72 portzentaje horien artean kokatzen dira.


Datu orokorra portzentajetan aztertuz gero lanean eta sensibilizazioan jarraitu behar dela ondorio nabaria da. Izan ere, 2010. urtean Tolosaldean egindako errenta aitortpen guztietatik %18,34 baino ez da euskaraz egin. Hala ere, baikorki pentsatuta datuak urteko urtera goraka doazela adierazi behar. 2008ko %12,26 horretatik 6 puntu gora egin da 2010ekoan azken kanpaina honi esker.

Bilakaera

Datuak, herriz herri aztertuz gero, gorakadaren abiadura ez da toki guztietan berdina. 2009 eta 2010 urteetako datuak parez pare jarrita eta portzentajeak aztertuta bilakaerarik nabarmenena Albizturrek eta Orexak eman dute. Albizturrek

%21,35etik %31,35era pasaz eta Orexaren kasuan %38,81 hori %46,15 bihurtuta.

Ia bilakaerarik izan ez duten herrien artean Hernialde, Zizurkil, Berrobi, Aduna eta Altzo kokatzen dira. Aipatu herrietan errenta aitortpena euskaraz egiten duten biztanleen kopurua ia ez da aldatu azken urtean: Hernialde (%22,04tik %22,22ra), Zizurkil (%15,18tik %15,88ra), Berrobi (%26,06tik %27,05era), Aduna (%24,05etik %25,20ra) eta Altzo (%33,33tik %34,63ra).

Hala ere, baikortasunaren alde aipatu behar zenbaketetan parte hartutako 27 herriak, maila altuagoan zein baxuagoan, guztiek euskarazko erabiltzaile kopuruan gora egin dutela. Eta datuek adierazi bezala, goraka jarraituko dutela datuak aztertzen urteotan ere. 



**BENTA
ALDEA**
JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behe
20400 Tolosa



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxe: 943 674 113



**errrotatxo
okindegia**

Andia kalea, 3 Amaro, 9-A
Tel.: 943 655 492 Tel.: 943 671 038

Tolosako Udal Liburutegia

37.193 kultur dokumentu mailegatzeko prest

Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatu berri dela eta Tolosako Udal Liburutegia gertuagotik ezagutzeko bidari ekin dio Galtzaundik. Aitzakia hartuta, liburutegia maileguaz haratago ikusteko bidea, liburuzainaren lana gertuagotik behatzeko aukera eta baita irakurle profila arakatzeko zita ere bada Susana Larreren gidaritzarekin egindakoa.

Naiara Roldán de Aránguiz

Susana Larre, Tolosako Udal Liburutegiko arduraduna, luxuzko gidari eta erakusle izan da tokiko liburutegia sakonago ezagutu ahal izateko. 1997az geroztik Tolosako Udal Liburutegian lanean diharduen donostierra da, 11 urtez haur liburutegia martxan jarri eta bertako langile izan da. Egun, Tolosako Udal Liburutegiko arduraduna da.

Susanarekin hitz egiteko orduan bere lanarekiko duen maitasuna argi azaltzen du, horregatik lehenik eta behin lanaren alderdirik positiboena eta negatiboena ezagutu nahi izan ditugu. Positiboanari dagokionez: "pertsona batek zerbait behar duela ikusi, topatu eta etxera pozik joaten dela ikustea positibo da. Edota guraso bati aholkua eman eta umearengan liburuak eragin positibo izan duela ikustean, egiten duzun eragina duela nabari dezakezu. Jendeak dituen hutsuneak liburutegiaren

zerbitzuari esker betetzen dira. Hori da gustatzen zaidana. Horrek betetzen nau".

Hala ere, lanak, nolabait esateko, alde negatiboak ere badu eta Susana Larre bere lana baldintzatzen duen diru publikoaz mintzo da: "zerbitzu publikoa izanik aurrekontuen menpe gaude eta krisiak ere eragina dauka. Europako beste lurralde batzuekin konparatuta, ez da behar bezala inbertitzen. Krisi garai hauetan gainera, gehiago inbertitu beharko litzateke hezikuntzan eta kulturaren. Politikariak aipatu bai baina aurrekontuetan ez dute islatzen. Honako hau da gure betiko guda: guk egindako lana beti demostratzen egon behar izatea. Politikariak edo dirua banatzen erabakitzen dutenek ez dakite guk zer nolako zerbitzua betetzen dugun".

Are gehiago, Susanak Liburutegi Publikoari buruzko Unescoaren Manifestuari erreferen-

tzia ere egiten dio liburutegien lana errebindikatzeko orduan: "Politikariak diskurtso askotan aipatzen dute gizartearen garapena edo partaidetza, baina hori bakarrik lortzen da jakintza, pentsamendu, kultura eta informazioa ezagutzeko aukera libre eta mugarik gabekoa duten herritarrekin. XXI. mendeko liburutegia liburu-funtsa baino askoz gehiago da: informazioa eskuratzeko gunea, euskarri guztietako materialak erraz eta dohainik erdiesteko bidea, oso jende desberdinaren topalekua, ezagutzarako ataria, teknologia berriak edonoren esku jartzeko gaitasuna duen zerbitzua. Dena den, gure agintariak ez dute liburutegi publikoetan nahikoa inbertitzen".

Liburutegien lana gorai-patzeko beste bide bat Liburutegien Nazioarteko Eguna izan zitekeen. Hala ere, ospakizun berriegia da liburuzaintzat,

orain artean Liburuaren Eguna ospatu izan dute. Are gehiago, Tolosako Udal Liburutegiaren arduradunak dio tankerako egunengan sinesmen handiegirik ez duela: "lana egunero egin behar da, luzaroan garatuko diren proiektuetan sinesten dut. Dirua ez da egun jakinetan gastatu behar, zerbait sinbolikoa egin eta gogoraraztea ondo dago, baina dirua luzera begirako proiektuetan gastatu behar da". Udal liburutegian lana taxuz egiten denaren adierazle dira hitz hauek.

37.193 dokumentu eskuragai

Urteen poderioz udal liburutegiak herritarren artean sustaia errotu ditu, datuak gainera horren erakusle dira. Egun xahuketa sakona egin ostean, baita erabiltzaile adituen laguntzarekin buruturik ere, guztira 37.193 dokumentu daude mailegatzeko moduan. Tolosa eta Tolosaldeko bizilagunak zerbitzua erabiltzaile izanik 2010. urtean egunean 80 bisita egin dituzte liburutegira. Helduen liburutegiak 19.721 bisitari izan ditu azken urtean, 11.272 dokumentu maileguan hartuz. Bestetik, haur liburutegian datuak altuagoak ere badira, erreferentzia bihurtzeraino. 2010 urtean 37.632 bisitari izan ditu haurrei zuzendutakoak, 24.814 dokumentu maileguan utziz.




Datu gordinak baino ez dira honakoak, baina egindako barne lanketaren erakusle ere badira. Izan ere, Susana Larrek zehaztu moduan, liburutegi batek egin beharreko lana sakona da erabiltzaile batek liburu bat maileguan eskuratu bitartean. Larreren esanetan liburutegi baten helburua "jendeari kultur aldetik euskarri ezberdinetan ekoiztutakoa hurbiltzea" izanik, eskaintza hori Aranburu eta Errotan egon artean bertako langileek aurre lanketa handia egin behar izaten dute; kalitatearen arabera aukeraketa burutzea, klasifikatzea, ordenatzea eta erabiltzaileari erraztasunez eskaintzea. Honela, egitekoak gehitu egiten dira: proiektuen lanketa, lanaren antolakuntza, katalogatzea, difusioa egitea, erabiltzaileen prestakuntzari aurre egitea...

Euskararen oinarri eskuraketa berrien aukeraketan

Liburuaren aukeraketa egiteko orduan merkatuan dagoenaren azterketa egiteaz gain -aldizkari profesionalen bitartez- erabiltzaileen iradokizunek ere pisu handia izaten dute: "Internet zein mostradore bidezko iradokizunei garrantzi handia ematen diegu, hala ere, oso eskari komertzialak baldin badira, baloratu egin behar izaten dira", dio Susanak.

Hizkuntzak berebiziko garrantzia izaten du aurre aukeraketa horretan, euskaraz argitaratzen den ia guztia erosten dela aitortzen du Susana Larrek, euskarari erabateko lehentasuna emanez. Hala ere, maileguan hartutako dokumentu kopurua ez da horren erakusle. Gaztelaniazko eta euskarazko liburuaren mailegu kopuruaren artean konparake-



Etxebarru zein kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa

euskararen semaforoa
euskararen semaforoa
blogspot.com



matilda
zure moda osagailu denda
Korreo Kalea, 3
Tolosa



10 tarako aukerarik ez dago: "haur liburutegian orekatua badago -6.977 euskaraz eta 5.797 gaztelaniaz- ere 12 urtetik gorakoek gaztelaniazko liburuak hartzen hasten dira. Helduen kasuan azken urteotan euskarazko irakurketa asko handitu den arren, ez dago konparaterik". -6.796 gaztelaniazko liburuei dagokionez, euskarazko 822ko datuaren aurrean.

Erabiltzaileek euskarazko liburu gutxi maileguan hartzearen arrazoien artean ondorengoak zehazten ditu Susanak: euskaraz alfabetatu gabeko jende asko egotea, euskaraz irakurtzeko ohi-turarik ez izatea, modan dauden liburuak irakurtzeko joera handia zabaldurik egotea -tankerako liburuen euskarazko itzulpen gutxi-.... Egoera honen aurrean liburutegiko arduradunaren hitzetan sustaketa planak aurrera eramatea beharrezkoa da, liburu errazekin hasierako atxikimendua sortuko dutenak: "irakurtzen hasteko liburu arinak behar dira, ondoren irakurketa sakonagoe-tara pasa ahal izateko. Irakurle-goa euskaraz irakurtzen hasteko beharrezkoak diren liburu magi-koak behar dira". Susanak euska-

raz irakurtzen hasteko proposa- mena behin baino gehiagotan egiten die erabiltzaileei Karmele Jaioren "Amaren eskuak" edo An-jel Lertxundiren "Zoaz infernura, laztana" liburuen bitartez. Izan ere, bere ustetan bi titulu hauek bertako produktioa tokiko liburu oso bisualak izanik, irakurle-goiari iristen zaizkion istorioak kontatzen dituzte.

Euskarazko merkatuan ematen ari diren aldaketak positibo-tzat ikusten ditu Susanak euska-razko irakurle berriak eskuratze aldera: "betikoez argitaratzeaz gain, gazte asko hasi dira, tar-tean emakume asko, eta hori oso positiboa izango da gehien bat irakurle gazte berriak konbentzi-tzeko", iritzi du Larrek.

Jatorrizko bertsioa, hamaika hiz-kuntza

Hala ere, euskara eta gazte-laniaz gain bestelako hizkuntza asko eta asko topa ditzake irakurleak Errotan zein Aranburu Jauregian. Ingelera, frantsesa, alemanera, italiara, ukrainiera, errusiera, urduera, txinera, katalana, arabiera... Askok eta asko Tolosako liburutegiak hitz egin-dako hizkuntzak. Atzerriko hiz-kuntzetako materiala erosteko garaian hasieran erosketa oro-korrari ekiten badio ere, gerora erabiltzaileen arabera hizkuntza batean edo bestean material gehiago eskuratzen du.

Tolosan, kultur ezberdinetan jatorria duten biztanleak egonik, hauei ere erantzuna eman nahi die udal liburutegiak, bai haurrei zuzendutako liburutegian, bai helduei zuzendurikoan eta bai-ta pediatrian sortutako txokoan ere. Haur liburutegian ingelasa hirugarren hizkuntza dela aipatu beharra dago.

Atzerriko liburu hauek zen-bait zailtasun sortzen dituzte, horietako bat katalogatzearena izaten da, askotan alfabetoak ere

ezberdinak direnean. Tankerako kasuetan kolaboratzaileen bitartez eta Tolosaldea Garatzen-eko Immigrazio Sailari esker erron-kari aurre egiten zaio. Material hauen erosketari dagokionean, bertako produktioa tokiko liburu-tegietan eskuratzen da, baina atzerriko materialaren kasuan, bertako langileek euren oporrak ere erabiltzen dituzte tokian tokiko liburuak eskuratzeko. Honela osatu du batik bat Tolosa-ko Udal Liburutegiak 'Jatorrizko bertsioa' delako txokoa. Bertan Nicaraguan, Kolonbian, Argentinan... zuzenean eskuratutako materiala topatu daiteke.

Liburuak baino gehiago

Tolosako Liburutegia eraikinei dagokionean, haur eta heldu liburutegiaren artean banaketa fisiko nabaria du. Honetaz gainera, liburutegi bietan materiala beste hainbat txokotan sailka-tuta ere erraz banatu eta topatu daiteke: literatura eta materia-dun liburuak, hemeroteke, bi ordenagailu -interneten aritzeko eta katalogoa begitatzeko-, bi-deoteka, komikiteka, jatorrizko bertsioa eta cd-ak helduei dago-kionean. Haurrek ordea, ondo-rengo txokoak topatu ahal dituz-te Errotan: aurretik aipatutakoez gain, mikroteka -ikasleek etxeko lanak bertan egiteko, eskaner, inpresora, kanpo memoria eta sei ordenagailu-, txiki txokoa -0-4 urte bitartekoentzat-, gurasoei zuzendutako atala, haurrei bu-ruzko informazioa eskuratu ahal izateko...

Honetaz gain Ipuin Txokoak ere aparteko tarte bat betetzen du. Hila-beteko lehen ostiralean burutzen dira honakoak. Ipuin kontaketa soilak ez direnez, nahitaezkoa da gurasoak seme-alabekin batera egotea. Kalitate handiko irudi li-buruen bitartez gurasoek euren seme-alabei ipuinak kontatzen

ikastea bilatzen du. Susana Larrek "Bularretik mintzora" kanpaina partaide ere badirela azpimarratzen du, ikastetxe eta gurasoekin batera: "txikitatik irakurlezaleta-suna etxean sustatuz gero, umea gerora irakurle bihurtuko da".

Nolako irakurleak?

Irakurle perfilari buruz hitz egiteko garaian, Susanak perfil batzuk egon badaudela aitortzen du. Emakumezkoak gizonezkoak baino ugariagoak direla ezin esan gabe utzi -2.076 emakume eta 1.302 gizonezko helduen liburu-tegian-. Horretaz haratago historia-zale ugari, intriga eta nobela erromantikoak gustuko duten asko eta bestelako maila bateko irakurketak egiten dituztenak ere gerturaten dira Aranburura. Jende asko nobedade zalea dela dio Susanak, obsesioraino eramanda. Horregatik, bere ustetan, ona izaten da liburutegi bateko langileen artean gustu edo joera ezberdinak egotea. Aberasgarria izaten da erabiltzailea gomen-datzeko orduan, joera bakarrera bideratu ez dadin.

Sarean ere presente

Tolosako Udal Liburutegia Aranburu eta Errotako apalez haratago doa. Udaran Usabalen antolatutako Udako Liburutegia ere bere eskumenean dago. Erabiltzaileak egon daitekeen tokira liburuak gerturatzearen ekimena oso positibotzat ikusten du Larrek: "leku askotan egiten da tankerako proiekturik, ezin dugu medailarik jarri, baina oso positi-boa izaten da normalean liburu-tegira gerturatzen ez den jende horrengan gerturatzea. Eragina izan du, inoiz baino liburu gehi-go ikusi da igerilekuan, baita jendeak etxetik ekarritakoak ere. Oso positiboa da edozein mo-mentutan liburu bat hartu daite-keela gogoraraztea."

Sareko katalogo bateratua in-ternet bidez erabiltzaileak konsultatu dezake, liburutegiko bestelako oinarriko informazio bezala TLSbateko web orrian duen gunearen bitartez edo Facebook-eko perfilaren bitartez. Hala ere, Larrek aitortzen du sare sozialek berebiziko garrantzia badute ere, liburutegiak oso garatuta ez dituela, "denbora behar da eta oso denbora gutxi daukagu; momentu honetan liburutegian finkatu gabeko gauza asko ikusten ditut eta horrelako foroek denbora asko eskatzen dute. Gure punturik ahulena da. Liburutegian gauza asko egiten dira eta haiei buruzko informazio zabalitzen ez ba-dugu, jende askok ezagutu ere ez ditut egingo".

Liburutegiak gainera sarean ere jarraipena badu. Izan ere, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen parte da eta horrek aukera ematen dio sareko edozein liburutegirekin materiala parte-katzeko. Astero 20 bat pakete liburuz osaturik Tolosako liburu-tegitik ateratzen dira maileguan. Liburu trukaketak sortzeaz gain erabiltzaile eta herri artean ere mugimendua sortu du sareak. Herri txikiek sare honen bitartez asko irabazi dutenaren ustekoa da Larre: "katalogo bateratua izateak erabiltzaileen artean mugimendua areagotu du, erreserba zerrenda luzea dagoen kasuetan batik bat."

Tolosako Udal Liburutegiak beraz bere egitekoan aurrera egingo du, dituen hutsuneak betetzen saiatuz, oztropoei aurre eginez eta Susanak dioen bezala "kultur aldetik euskarri ezberdi-netan ekoiztutakoa jendeari hur-biltzen". Erabiltzailearen ardura ordea aukera horri heldu eta eskura dituen kultur produktuak maileguan hartu, irakurri eta go-zatzea.



Susana Larre

Jaioterra? Donostia, 1973

Ikasketak?

Bibliotekonomia eta doku-mentazioa

Gustuko libururik?

Ana Karenina, L. Tolstoi

Gustuko idazlerik?

Umeentzako, Roald Dahl
Saiaitu arren amaitu ezin izan duzun liburua? Obabakoak. Pendiente daukat.

Momentuan irakurtzen ari zarene?

Javier Reverteren.
"Sueño de Africa", Émile Aja-ren "La vida ante sí" eta Su-sana Vallejoren "Azken udako espiritu"

Kanpora joandakoan liburu-tegiak bisitatzen dituzu? Bai. Beti. Berdin dio zer nolako lurraldetan nagoen, txiroa bada ere baliabide gutxiarekin nola moldatzen diren ikustea gustatzen zait. Internet bidez udal liburutegiak bilatzen ditut.

Erreferentziarako liburutegi bat?

New York-eko udal liburu-tegia. Sarrerako zerbitzuak harritu ninduen: liburu-den-da itxurako best-seller mahaia, mailegu azkarra, modan dagoen liburu bakoitzaren hamar bat ale astebetean irakurtzeko.

Zein liburutegi ikusi nahiko zenuke?

Alejandriakoa. Baina egia esan, bidaiatzen du-danean liburutegi nazionalak baino auzoko udal liburutegi publikoak bisitatzea gusta-tzen zait. Haur liburutegiak badira, askoz hobea.

Xirimiri

Txokolategia
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Erremeritari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA

Argi lanak
Iluminazioa
Antenak
lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi

SEGURAS
BILBAO



Aholkularitza integrala

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin
Eceizabarrena
Instalazio erreforma
Konponketak
Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

J. San Sebastian

MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Hezkuntza eta errealitate linguistiko azterketak

Tolosa eta Cardiff Comenius Regium hitzarmenaren bitartez elkarlanean jardungo dira

Tolosa eta Galeseko hiriburua, Cardiff, elkarlanean arituko dira bi urtez (2011-2013) Europako Hezkuntza Programa Autonomoen Erakundeak aurrera eramandako Comenius Regium delako hitzarmenaren bitartez. "Proiektu berritzaile" honen helburua eleaniztasun jarrera positiboak eta praktika onak bideratzea izango da.

Erredakzioa



Hitzarmenaren sinatzaile Tolosako Udala, Laskorain Ikastola, Orixe Institutua eta Berritzegune Nagusia dira euskaldunen bultzatzaile gisa. Galestarren partaide ordea Cardiff Country Council -bertako udala- eta hizkuntza errealitate ezberdinean lan egiten duten bi ikastetxe: Coed Glas Primary School eta Ysgol Gyfun Gymraeg Plasmawr Secondary School. Lehen hizkuntza nagusi ingelera erabiltzen duen lehen hezkuntzako ikastetxea eta bigarrena ordea, gaieraz lan egiten duen bigarren hezkuntzako ikastetxea. Edurne Mendiak, Tolosako Udaleko Kultur zinegotziak, azaldu moduan "izaera ezberdineko ikastetxeek parte hartzeak proiektua aberastu egiten du".

Arantza Martinezek, Berritzegune Nagusiko ordezkariak azaldu bezala, proiektua garuko gizartearen aldaketaren bai-



tan kokatu beharra dago, hots, ezaugarri orokorren baitan, malgutasuna baita, bere esanetan, aldaketetara egokitze bidea. Mugikortasuna egunean eguneko errealitatea da eta horretarako nahitaezkoa da atzerriko hizkuntzen beharra. Honela, proiektuak besteak beste "atzerriko hizkuntzekiko jarrera positiboak areagotzea" bilatzen duela aitortu du Berritzeguneko ordezkariak. Are gehiago, "beste kulturen garrantziaz, nahasketaz ohartzean, gure hizkuntzari babesa emango dio". Horretan, proiektuaren elementu diren eleaniztasuna eta Informazio eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) paper garrantzitsua beteko dute.

Orixe Institutuko Joserra Zalakainek azaldu moduan, hitzarmenaren koordinazioa Cardiffi egokituko zaio, tankerako proiektuetan eskarmentua duelako. Honela, bai Cardiffeko ikastetxeek eta baita Tolosako ere hezkuntzako zenbait aspektu hobetzeko aukera izango dute: aholkularitza, elkarlana, IKTak, ikasleen mugikortasuna, hezkuntza arazoei aurre egitea... Horretarako, lan-plan osoa garrantzirik dute alderdi biek. Proiektua martxan jartzeagatik 36.982,50 euroko diru-laguntza jasoko da eta 18.000 eurokoa mobilitateari zuzenduta.

Lan planan irakasleen formakuntza, hizkuntzen arteko alfa-

betatze trebetasun garapena, gurasoen parte-hartzea, eskualde bakoitzean kudeaketarako taldea sortzea, taldeak lan plana zehaztea, leku kolaboratiboa sortzea eta lana argitaratzea zehazturik ditu. Orain arte Cardiffeko bisitaldiaz gain bertako errealitate soziolinguistikoa eta hezkuntza sistemaz jabetzeko, 2011ko irailean koordinazio bilera ospatu dute eta ikasle, irakasle eta gurasoek atzerriko hizkuntzekiko duten jarrera neurtzeko galdetegiak banatu dituzte. Hurrengo pausua 2012ko otsailean emango da, bi herrien arteko mugikortasuna aurrera eramanez.

Galestar eta euskaldunen arteko antzekotasunak

Iñaki Irazabalbeitiaren, Tolosako Udaleko Hizkuntza politika eta hezkuntza saileko zinegotziaren ustetan, proiektua martxan jartzea "Udalarentzat garrantzitsua da herriak hartuko duen proiektio internazionalagatik eta Galesekin harremanetan jartzen duelako Tolosa". Herri paretsu gisara aurkeztu ditu Irazabalbeitiak Euskal Herria eta Gales: herriaren identitate nazional errebindikatiboa, diglosi egoera, kultura eta ekonomia dira antzekotasun honen elementu komunak. Hitzun kopuruari dagokionean, Euskal Herriak duela hogei urte bizi zuen egoera dagokio, ordea, egun Gales herriari.

Bestetik, Berritzeguneko ordezkariak gehitu bezala, Galestarren gainera ez daude oso arduratuta eta motibatuta atzerriko hizkuntzak ikasteko. Horretan Tolosako ordezkariak lagun izango dituzte "gizarte praktika onak garatzen, hizkuntzekiko jarrera positiboa indartzen". Irakasleentzako material sorta jorratuko da, eleaniztasuna sortu eta hizkuntzak lantzeko aproposa, irakasleei zuzendutako mintegiak ere aurrera eramango dira.

Amaitzeko, Laskorain ikastetxeko zuzendariak, Jone Urteagak, proiektuarekiko atxikimendua ere erakutsi nahi izan du, alde biek Tolosak zein Cardiffek erakusteko eta ikasteko dutena azpimarratuz. Izan ere, proiektuan lehenengoz parte hartzeko intentziora azaldu zenean, ikastolak bilatutako lehen helburua ikasle trukaketa izan zen. Ondoren egitasmoak horretaz gainera elkarlanean aritzeko eta praktika onen trukaketarako ere aukera ematen zuela jabetu ziren. Laskorain ikastolak Cardiffeko ordezkariari 'Eleanitz' proiektua azalduz jabetu ziren galestarrei zer erakutsia bazutela, euskara ardatz hartuta metodologia garatzea, alegia.

Hitzarmenak 2013 bitartean ematen dituen fruituak ezagutu eta ezagutarazteko zain egongo dira tolosar eta galestarrek. ☺

ZALBIDE
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan. Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176

SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoak erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarekin.

Laskorain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA

gizarte kutxa

Kimetz Martinez

“Nahi nuena ez
nuelako aurkitzen
hasi nintzen
tablak egiten”

26 urte ditu Kimetz Martinezek. Graffiti-a, skate-a, surf-a,... gustuko ditu. Surfeatzeko eta patinatzekeo tabla bereziak gustatzen zirenak, eta dendetan berak nahi bezalakoak ez aurkitzean, tablak egiten hasi zen, *shapea*-tzen.

Igor Mujika

Noiz hasi zinen shaper lanetan?

Skate tablak egiten duela bost urte hasi nintzen. Surf tablak begiratzen ere duela bost urte hasi nintzen: formak ikusten, surf-aren historia ikasten, killak probatzen,... Duela urtebete inguru egin nuen tabla osoa. Autodidakta izan naiz, nire kasara egin ditut ikerketa horiek. *Alaia* tablak egiteko ikastaro batean hartu nuen parte baina, batik bat, mundu

honetan mugitzen den jendea ezagutzeko asmoarekin.

Zein izenekin sinatzen dituzu zure lanak?

Jelsen izena erabiltzen dut nire lanak sinatzeko.

Zein ezberdintasun dago skate-ko eta surfeko tablen artean?

Tamaina ezberdinetakoak dira. Halaber, surfeko tablak egiterakoan gauza asko hartu behar dira kontuan: formak, ertzen borobil-durak,... Surfean ezaugarri horiek guztiak funtzionalak dira; skate-an, aldiz, ez. Ondorioz, surfeko tabla bat egiterakoan hori dena kontuan hartu behar izaten da: luzera, zabalera, punta, ipurdia, killak,...

Zein estilotako surf tablak egin dituzu orain artean?

60. hamarkadako tablak egin ditut. Surfaren historian gehien 60. hamarkada gustatzen zait. Garai horretan hasi ziren surf-lariak patinetan ibiltzen ere. Urte nahiko inozenteak ziren: ez zegoen gaur dagoen komertziorik surfaren inguruan, oso naturala zen zegoena. Askok gustatzen zaidan garaia da eta, horregatik, garaia hartako estiloko surfeko eta skate-ko tablak egiten ditut.

Nolakoak ziren 60. hamarkadako tablak?


Killa bakarreko longboard tabla handiak erabiltzen zituzten surfeatzeko. *Pig surfboard* moduan ezagunak dira aipatu tablak, txerriaren itxura dutelako: punta ipurdia baino estuagoa dute. Egungo tablek punta ipurdia baino zabalagoa dute. *Pig surfboard*

moduan ezagunak diren tablak oso egokiak dira, esaterako, *cross stepping* -tablaren atze aldetik aurre aldera oinez joatea- delakoa egiteko.

Garai haietatik hona zer aldatu da surf eta skate tablei dagokienean?

Mundua bera aldatu da. Surf-arekin mugimendu berri bat sortu zen, kontra-kulturala, sistematik at zegoena. Surfistek egun osoa hondartzan pasatzen zuten. Bertan egiten zuten lo, festak hondartzan antolatzen zituzten,... Garai haietan horrela bizi ziren. Egundak, lehiaketak, markak,... medio, beraiek esaten digute zein tabla erabili, zer egin,... Telebistan eta aldizkarietan ikusten duguna egiten dugu denok, orohar. Baina hori ez da surf-a. Ez behintzat hori bakarrik. Eboluzio asko egon da ordutik baina, egun, surf-a hiru killa dituzten tabla txikietan geldirik geratu denaren sentsazioa dut. Lehiaketak,... medio tabla modelo hori esplotatu egin dute. Horregatik, surfari dagokionean, Hego Euskal Herria geldirik gertatzen ari denaren sentsazioa dut.

Skate-ari dagokionean ere tablak asko aldatu dira. Garai batean, monopatinak surfisten beste osagai bat ziren. Surfisten eguneroko bizitzako parte ziren eta, hondartzara joateko,... erabiltzen zituzten. Surf-ean egiten diren mugimenduak skate-aren bitartez egiten zituzten hutsik zeuden igerilekuetara,... sartuz. 1965. urtearen bueltan, surf-ak eta skate-ak bakoitzak bere bi-dea hartu zuen. 60. hamarkadako lehen skate tablak erruedak zituzten surf tabla txikiak ziren.



Olaturik ez zegoenean, surfistek denbora pasatzeko erabiltzen zituzten.

Lapurdiko garapena beste bat izan al da?

Surf-a Europara Miarrizetik barrena zabaldu zen. Miarrizeko olatuak ezagun egin ziren Ameriketako Estatu Batuetan eta Australian eta, hango surfistak, hona etortzen hasi ziren 60. hamarkadan. Joatearakoan, beraien tablak hemen uzten zituzten. Bertako jendea tabla haien antzekoak egiten hasi zen. Pentsa, surf-ari lotutako bizimodua Kalifornian 1940. urtearen bueltan hasi zen zabaltzen. Hemen, aldiz, 1960. urtearen bueltan. 20 urteko diferentzia dago batetik bestera. Egundak ere orduko estiloko tabla gehiago ikusten dira Lapurdin, Gipuzkoako eta Bizkaiko hondartzetan baino.

Zergatik eta zertarako hasi zinen tablak egiten?

Nire asmoa ez da merkatuan sartzea. Gauza pertsonalak egiten ditut, niretzako edo nire lagunentzako. Diru asko gastatu behar

izaten da tabla bat egiterakoan, batik bat surf-eko tablak egiterakoan. Komertzioaren munduan sartuz gero, nire printzipioen aurka joango nintzateke. Nik nahi nituen skate tablak ez nituelako merkatuan aurkitzen hasi nintzen skate tablak egiten. Surf tablak egiten ere arrazoi berdinengatik hasi nintzen.

Zein materialekin egiten duzu lan?

Skate-ko tablak haritzarekin egiten ditut. Haritz trinkotik tabla osoa ateratzen dut. Garai bateko patineteak hala egiten ziren eta nik ere hala egiten ditut.

Surf tablak foam-arekin eta zuntzarekin egiten ditut. Behin foam-ari forma emandakoan beira-zuntza jartzen diot gainetik eta poliesterre botatzen diot. Plastikoa ez dut ezertarako erabiltzen.

Aurrera begira, zein helburu dituzu?

Nire ilusioa tabla gehiago egitea eta jendeak nire tablak probatzea da. 60. hamarkadako surf-a gustatzen zaion jende gehiago badago. Mundu horretan murgil-



duta dagoen jende gehiago eza-gutzeko nahia dut.

Surf-eko tabla egile konkreturen bat ba al duzu bereziki gustuko?

Hemen gertukoa, Daniel Longboards, Miarriztekoa. Kanpokoak, Greg Noll, Donald Takayama,...

Zer gustatzen zaizu shaper izate-tik?

Uretara sartzerakoan tablak funtzionatzen duela ikustea. Izugarrizko poza eragiten du zuk egindako tablarekin olatua hartzeak. Hutsetik hasi eta bukatu arte zuk egin duzu tabla hori eta, uretara sartu eta funtzionatzen duela ikustean, izugarrizko poza sentitzen da.

Zenbat denbora behar izaten duzu tabla bat egiteko?

Oso argi izanez gero nahi dudana -forma, lodiera,...-, 3-4 egunetan forma ematen diot. Zuntz-a ematen denbora gehiago behar izaten da, sekatzeko denbora behar izaten duelako. Zein formatako killak eta non jarri erabakitzen ere denbora asko pasatzen da. Izan ere, killena beste mundu bat da. Killak eta tabla, bakoitzarekin zer lortu nahi duzun eta elkarrekin ongi joango ote diren aztertu behar izaten da. Killak egurrekin edo zuntzarekin egiten ditut. Guztira, 2 aste edo gehiago behar izaten dut tabla

osoa egiteko. Tablaren diseinua ere eskuz egiten dut. *Out line* deritzona, hau da, surf tablaren kanpo aldeko forma paperezko edo kartoizko plantilla handi batean marrazten dut, eskuz. Gero, egur batera pasatzen dut marraztutakoa. Egur horri forma ematen diot eta, behin amaitutakoan, aparrerera pasatzen dut. Tabla bat sekula ez errepikatzen saiatzen naiz.

Zuk egindako tablak non eta nola banatu pentsatu al duzu?

Nire mundua ez dela horren txikia eta nire antzera pentsatzen duten pertsonak eta dendak badirela ikusi dut. Nire tablak oso denda berezi eta jakinetan banatu nahiko nituzke. Denda horietara nire pentsamolde berdineko jendea joaten da eta, bertan, tabla komertzialak baino artelanak egoten dira. Egun, kontaktuak egiten ari naiz. Buruan dut Kaliforniara joatea ere. Datorren urtean joan nahiko nuke. Nire moduko tablak egiten dituen kaliforniar batekin badut harremana eta bertara joan nahiko nuke bere lana gehiago ezagutzera, zer eta nola egiten duen ikustera. Izan ere, oraindik orain, Kalifornian 60. hamarkadako surf tablak, *longboard*-ak, modan daude. Miarritzen, ere ari naiz kontaktu batzuk lantzen. Lehenik ongi landu nahi ditut kontaktuak,

gero modu egokian zabaltzeko nire lana. Nire nahia jendea eza-gutzea, kolaborazio lanak egitea, ... da.

Norbaitek zuk egindako tabla nahiko balu, nora jo beharko luke?

GKo galerian galdetu ahal du, lagunak ditut eta bertan.

Nola aldatu da shaper-en lana garai batetik hona?

Orain tabla guztiak aurre di-

seinatuta etortzen dira. Garai batean, foam aparrari norberak eman behar izaten zion forma osoa. Egun, foam bloke osoa makina batean sartu eta fresadora batzuekin diseinatzen da. Lehen dena eskuekin egiten zen eta, ondorioz, garai bateko tablak benetako artelanak ziren. Makinek lana erraztu egin dute baina nik nahiago ditut hutsetik bukaeraino eskuekin egindako tablak.

Motzean

Surfeatzeko txoko berezi bat

Hendaiaiko hondartza, Kasinoaren inguruan. Hondartza lasaia eta handia da. Miarrizteko Euskal Kostaldea hondartza ere oso gustuko dut. Hondartza horretatik sartu zen surf-a Europara. Olatu luzea du eta hondartza lasaia da.

Ur azpian, hondarra ala har-kaitza nahiago?

Hondarra nahiago dut. Errespetu handia diot surfari.

Bakarrik ala lagunekin?

Bakarrik surfeatzea gustatzen zait. Beti norbaitekin sartzen naiz uretara baina gero, uretan, bakarrik egoten naiz.

Gustuko musika talde bat?

Creedence, Neil Young,...

Surf tablak koloreztatzea gustatzen zaizu.

Bai. Surf tabla alaiak gustatzen zaizkit eta, horregatik, kolore askorekin marrazten ditut. Graffiti-en mundua ezagun dut eta bere eragina nabaria da nik egindako tabletan.

Surfeatzeko zein urtaro gustatzen zaizu gehien?

Uda gustatzen zait gehien. Eguzkizalea naiz eta uretan, tabla gainean, eguzkiak jotzen didala, oso gustura sentitzen naiz.

Gustura egingo zenukeen bidaia?

Kaliforniara gustura joango nintzateke. Han surf-a oso barneratua dute, bizitzeko modu bat da.

Gustuko duzun pelikula bat?

Big Wednesday.

Ahaztuko ez duzun olatua?

Duela bi urte, udaran, Hendaian. Jende asko zegoen uretan, egun polita egiten zuen surfeatzeko. Ur masa handiko olatuak zetozen, nahiko fofoa. Hartuko ez nuela pentsatzen nuen olatua arraun egiten hasi nintzen. Hartu egin nuen olatua, eta metro pilo bat egin nituen olatuaren gainean, garrasika eta ahoan irribarre handi bat nuela, jendeak besoak altxatzen zizkidan bitartean.



Amaia Etxetxipia

Nutrizio aholkularia

Koxk! Kaltzioaren inguruan

Kaltzioa, hezurretan eta hortzetan pilatzen da batik bat eta kantitate txikiagoan odolean zehar ehun desberdinetara zabaltzen da.

la gehiena hezurretan kokatzen da, hezurri gogortasun hori emanaz. Beraz, hezurren funtsezko osagai bat da. Kaltzio honek garrantzi handia du gure hazieran eta pilatuz joango da. Ondorengo urteetan, kanpoaldearekin hartu-eman handiak izango ditu eta etengabe kanporatzen doa; guzti honegatik, elikagaietatik lortu behar dugu kaltzioa, galdutakoa berritzeko.

Gure gorputzak ez badu lortzen behar duen kaltzioa dietaren bitartez, gure hezurretatik hartuko du. Honen ondorioz, hezurak ahultzen joan daitezke urteak pasa ahala, erraztasun handiagoz hautsiko direlarik.

Baina funtzio gehiago ere baditu: odolaren koagulazioan parte hartzen du, muskulu-uzkur-duran eta nerbio-transmisioan ere bai; mintzen iragazkortasun egokian, hesteen xurgatze eta jariatzean eta hormonen aska-

tzean ere parte hartzen du.

Eguneko kaltzioaren beharrik aldakorak dira adinaren arabera. Behar hauek handituta daude haur eta adolezentszian, hazten ari direlako; baita ere haurdunaldian, haurraren eskeletoa mineralizatu behar delako eta edoskitzean ere bai.

Zahartzaroan, kontutan edukitzeko arazo bat dago; hesteen funtzioa endekatuz doa eta honen ondorioz, kaltzioaren xurgapena mugatuta egon daiteke. Gainera, jarraian geldirik egoteak, hezurreko kaltzioa galdurazi dezake.

Hala ere, gehiegi hartzea ere kaltegarria izan daitekeela kontutan eduki behar da, kaltzifikazioak sortu daitezkeelako ehun bigunetan eta giltzurrun-kalkuluak ere bai. Beti diogun bezala, gauzak bere neurrian!

Kaltzioaren iturriak aipatu baino lehen, beste puntu garrantzitsu bat azalduko dugu: xurgapena. Gure organismoak ez du kaltzio guztia era berdinean aprobetxatzen; adibidez,

Kaltzioaren inguruan maiz informazio ugari iristen zaigu. Baina askotan, hainbeste informazio jasotzean nahastu egiten gara eta dudak sortzen dira. Nahiko kaltzio hartzen ari al naiz? Gutxiegi? Gehiegi hartzea ere gerta al daiteke? Zer ikusirik al du nire adinarekin? Guzti hau argitzeko, lehenik aurkezpen labur bat egingo dugu.

barazkien kaltzioa esnekiena bezain eraginkorra ez da. Zer-gatik? Barazki hauetan zenbait sustantzi aurkitzen direlako mineral honen xurgapena oztopatzen dutenak.

Hona hemen, kaltzioaren absortzioan laguntzen dutenak: D bitamina eta laktosa.

Oztopatzen dutenak:

-Gehiegizko fosforo kantitateak (egoera hau, elikagai proteiko gehiegi hartzean eman daiteke, batez ere, haragi eta deribatuek, fosforo ugari du-telako).

-Fitatoak (zerealen azalean aurkitzen dira).

-Oxalatoak, hostoko barazkie-tan ugari (kaltzioarekin gatz disolbaezinak osatzen dituzte, bere absortzio egokia ekituz).

-Proteina kantitate altuak, gerruaren bidezko kaltzioaren galera handitu dezake.

-Kafeina, alkohola eta gatzak ere, kaltzioaren gerru bidezko galera handitzen dute.

Kaltzioaren jatorri onenak esnekiak izaten dira, baina badi-gehiago ere:

-Barazkien artean: sesamoa, fruitu lehorrak eta lekaleak. Brokoli, espinaka eta laranjetan maila txikiagoan.

-Arrainen taldean, hezur-rekin jaten direnak batez ere (latako sardinak adibidez).

-Sojaren deribatu batzuk ere kaltzio ugari dute (adibidez, tofua).

Eta bukatzeko, gai askotan gomendatzen den bezala, kasu honetan ere aktibitate fisikoaren garrantzia aipatuko dugu. Izan ere, bizitza sedentarioa daramaten pertsonetan, hezuraren desegiteak, eraketak baino indar handiagoa du. Ondorioz, aktibitate fisikoak, hezur-masaren galera ekiditen du eta osteoporosia geldiarazten laguntzen du.



Finlandiako paisai tipikoa: Laku ondoko eta baso barruko bungalow bat

Gauerdiko eguzkia Inarin (Laponia)



Savonlinnako gaztelua



Rovaniemiko (Laponia) udaletxea (Alvar Aalto arkitektoarena)

Ipar Handirako bidai bat

Finlandiako esperientzia

Aurten, oportetako bidai erabakitzeke unea iritsi zenean eta bidai hori Europako oraindik ezagutzen ez gunden herri batera izan behar zuela garbi gelditu zenean, ezagutu gabeko herri asko gelditzen ez zitzaigunez eta horien artean Finlandia izanik, hautua garbia zen.

Juan M. Sansinenea

Egia zen nik lan bidai bat zela medio, orain dela 15 edo 20 urte Finlandiara joan behar izan nuela. Eta gutxienez hiri batzuk: Helsinki, Espoo eta Tampere, hain zuzen, ezagutzen nituen. Bidaiaren diseinuko lehenengo puntuak (iraupena, bisitatu nahi genituen inguruak edo herrialdeak, bidai egiteko garaia, etab.) kontsideratzen hasi ginen, berehala mahai gaineratu zen bidai egiteko garraio sistemak eta, batez ere, kostua eta mugitzeko nahi gunden askatasuna kontutan harturik, gure kotxea eramatea eta Baltikoa zeharkatzeko itsasontzia erabiltzea erabaki gunden. Erabaki honen alde, Internetek gaur egun bidaiak antolatzeko ematen duen erraztasunen pisua ere bazegoen. Gaur egun modu guztiz sinplez eta erosoaz posible da

norbera bere etxetik konplexutasun erdia duen (12-14 geldiketako puntu, ferry ticketak, etab.) bidai bat planteatzea. Bestalde, ingeles hizkuntzaren *lingua franca* bezalako balio ia unibertsalak eta, hori, batez ere Finlandian, erraza egiten zuen bidai hori diseinatzea.

Aurrekoa esanda, bidai ekainaren bukaeratik uztailearen bukaeraino (tenperatura egokienak) eta Travemündetik (Alemaniar Baltikoko itsasertzean) Helsinkiraino (Finlandiako Hegoalde), 28 orduko ferry bidai batean Baltikoa zeharkatzea erabaki gunden. Alojamentu sistema nagusia (eta praktikan, gutxienez Finlandian, bakarra) Finlandiak duen *campground* sarea erabiltzearena izan zen. Sare horretan, ia camping guztietan mota askotako bungalowen eskaintza zabala zegoen, kasu

batzuetan zerbitzu askorekin eta, normalean, prezio moderatuetan (Finlandiako bizimaila kontutan harturik). Gainera, bungalow horiek finlandiarrek naturarekiko duten lotura eta maitasunaren adierazleak ziren. Hitz batean, finlandiarrek, haiek ere, zerbitzu horien lehenengo kontsumitzaileak dira eta nik uste dut baso batean eta laku ondoan dagoen egurrezko bungalow batek finlandiar batentzat opor ideletatik gertuen dagoen oporrak pasatzeko sistema adierazten duela.

Behin Finlandia iritsi ezkerro, jasotzen duzun lehenengo impresioa naturarena da, ziur aski. Basoak eta lakuak nonahi. Zentzu horretan Kanadarekin antza handia du (laz Kanadara joan nintzen eta gogoan nituen oraindik herri horren imajinak) baina, hori bai, Finlandiak ez

dauka Ipar Amerikako herri horrek dituen zabalerak (*The Great Plains*), ezta mendilerroak ere (*The Rockies*). Zaila da Finlandian bidai bat egin eta laku bat ez pasatzea, zeharkatzea edo, besterik gabe, ez ikustea. 200.000 laku omen daude herri horretan. Ugaritasun horrek, logikoa denez, finlandiar hizkuntzan utzi ditu beren aztarnak. Oso ugari dira *järvi* (lakuak), *joki* (ibaia), *lahti* (badia) hitzak barruan dituzten toponimoak. Basoak ere nonahi daude eta bertan egonik, erraz ikusten da finlandiarrek basoekin eta egurrarekin duten lotura afektibo eta ekonomikoa ere. Maiz aurkituko ditugu paper-fabrikak, enbor luzeak garraiatzen dituzten kamioiak, edo basogintzara dedikatutako museo monografikoak eta, azken hauek, oso politak eta interesanteak gainera.

Finlandiak 338.000 km² ditu, eta ez da, beraz, herri txiki bat. Populazioaren aldetik dentsitate txikia izanik eta errepide sarea oso ona duenez (bere garapen mailarekin pareko espero genezakeena) oso lasai bidaiatzen da kotxez. Guk, Errusiaren ondoan gelditzen den aldetik (Karelia) hasi gunden bidai. Zonalde hori finlandiar nazioaren muina da finlandiarrentzat, ziur aski, eta sentimendu mingotsak ekartzen dizkie finlandiarrei. Il Munduko Gerran galera geografiko handiak jasan izan behar zituzten finlandiarrek errusiaren mesedetan. Finlandiar nazioaren bihotza Karelian aurkitzen dela esaten nuen eta hori argi ikusten da, *Kalevala*, finlandiar poema nazionala, Karelian bertan kokatzen dela ikusten dugunean. Kareliar inguruan Errusiaren presentzia ez da inoiz urruti: zirilikoz idatzitako eta Errusiako muga adierazten zuten kartelak, errusiar turista ugari, etab. Kareliako zati horretan (Lappeenranta, Savonlinna, Lieksa) daude Finlandiako lakurik handienak eta toki horietan askotan ikusten dira, Euskal Herriko kostaldean bezala, *yatchez* beteriko kirol portu handiak.

Karelia zeharkatu eta gero, eta beti iparraldera joaten, Laponiara iritsi ginen. Lurralde hori Ipar Zirkulo Polarraren barruan (66° N-tik gora) aurkitzen da eta, Rovaniemi du hiriburua. Laponian nabarmenago dugu paisai aldaketa nagusi bat, eta hori, batez ere, Rovaniemitik goragoko lurraldean. Oso iparreko latitudeetan zehar txikiagoekin topatu ginen eta paisaia nabarmenki transformatu zela konturatu ginen. Rovaniemik duen bitxi bat, Artikumuseoa da, Artikoko inguruko bizitza, ohiturak, natura, fauna eta etnografia

erakusten dituenak. Baina Laponiak bazeukan beste altxor bat erakusteko: Sami herria, Sami herriak Sami hizkuntzak (bat baino gehiago dago eta Suomi edo finlandiar hizkuntzarekin lotura dute) hitz egiten dituzte eta Laponiako Inari herrian aukera izan gunden herri horretako kide batekin hitz egiteko. Elkarrizketa horrek argi utzi zigun samitarrek, euskaldunok ditugun hizkuntza arazoak bereaie ere badituztela: hizkuntza minorizatu bat, eta horrek ekartzen dituen lanak. Puntu honetan komenigarria da gogoratzea, Suomi (edo finlandiar) hizkuntza, Sami hizkuntzak bezala (eta Europako beste hizkuntzak ere: estoniera, hungariera, etab.) fino-ungariar enborretatik datozela. Hizkuntza guzti hauek, euskara bezala, ez-indoeuropear hizkuntzak dira eta hori berehala antzemango du bisitariak. Finlandian, lehenago Hungarier bezala, hizkuntza hermetiko baten aurrean izatearen impresioa izan nuen, oso azkar. Hermetikotasun horrekin, finlandiar hizkuntzak, ezagutzen ditudan beste hizkuntzekin erlaziorik ez zuela adierazi nahi dut.

Hizkuntzetatik aldenduz, Laponian ikusi gunden fenomeno bitxi bat *gauerdiko eguzkiarena* izan zen. Latitude horietan (gu, 70° Neraino iritsi ginen) eta uda garaian, eguneroko gauza da eta toki batzuetan ilunabar politak ikusteko aukera ematen du. Asko dago Finlandiaz hitz egiteko, zoritxarrez artikulu honetan sartzen dena baino dezente gehiago, baina zerbait nahitaez aipatu behar dudana da finlandiarrek kalitatezko diseinuz

dituzten grina eta dohainak. Eta Finlandian diseinuz hitz egitea, *Alvar Aalto* arkitekto miresgarriaz hitz egitea da. Ez bakarrik, batez ere Finlandian bertan, diseinatu zituen eraikuntzatik, baizik eta diseinatu zituen hainbeste objektuengatik (altzariak, kristalezko ontziak, etab.) ere. Finlandian inoiz ez zaude oso urruti A. Altok diseinatutako eraikin polit eta erakargarri batetik. Une honetan, Imatrako eliza delikatua, Seinäjoki hiriarren erdiguneko eraikin multzoa, Säynätsalo hiriarren udaletxea, Rovaniemi hiriarren erdigunea edo, arkitektura munduan erdigarria izan zen (eta ziur aski, oraindik den) Paimioko ospitalea etortzen zaizkit gogora. Benetan erdigarria da arkitekto handi honen lana. Nik uste dut haren lana ikusteak Finlandiarako bidai bat egitea justifikatzen duela.

Arkitekturaz ari garenez, esan behar dut Finlandiako hiriak (Helsinki eta, behar bada, Tampereren salbuespenekin) ez zitzaizkidalako oso erakargarriak irudituko. Nik uste dut estatu independente gazte izateak (1917an lortu zuen independentzia Errusiatik) eta finlandiarrek hiriekiko baino gehiago naturarekiko joera izateak esplikatzen duela hirien erakargarritasun eza hori. Bukatzeko esatea Finlandia dela, nire ustez, Europa hain interesgarri egiten duen Europa honen aldaeraren eredu bat. Arrazoi honengatik, haraino joango denak nekez sentituko du gaizki aukeratutako bidaiak sortzen duen frustrazioa. ☺

Errotulazioa & inudia
Vicente
www.rotulosvicente.com
943 69 02 94
taller@rotulosvicente.com
Laskibar bialara 25, 1-04 atara
20271 Iruia (Gipuzkoa)

Saldias Miguel
CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
N. D.G.S. J.1759
Bizi-asegurua
Kotxe-asegurua
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurua
Denda-asegurua
Erretiroak
Inbertsio fondoak
SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

0100100
0011100
0011100
0011100
Tolosa Bit
Informazioa, Serbitzuak
Oinarritutako eta konpartitutako
Erreklamazioa eta partikularitateak
Mantentzeak
Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

irakurri entzun Ikusi

Narrazio tailerra
Mikel Hernandez Abaitua

Era guztietako narrazio-taile-
rretan eta batxilergo mailako
irakaskuntzan erabilgarria
izateaz gain autodidakta mo-
duan ikasi nahi duenarentzat
ere baliagarria den liburua,
gazte zein heldu. Idazle
bihurtzeko bidea irakatsi ez
baina idazten teoriatan zein
praktikan esperimintatzen
hasteko bitartekoa.

Ametzak pilatzen
Su Ta Gar

Kanta instrumental batek ematen
dio hasiera Su Ta Garren
estudioan grabatutako
bederatzigarren diskoari,
ametsez eta desioz betea.
Guztira hamaika kanta
eta tartean lehendabiziko
single-a bihurtu dutena,
"Norbera bere ametsen
jabe".

Thriller. Film anker bat
Bo Arne Vibenius. Suedia. (1974).
Donostiako Fantasiako eta Bel-
durrezko Zinemaren XXII. Astea-
ren baitan 1974ko
Thriller. A cruel picture
filma eskainiko da
jatorrizko bertsiotan
euskarazko azpiti-
tuluekin azaroaren
4an. Agure batek
Madeleine neska-
la bortxatu du, eta ho-
rren ondorioz, Madeleine mutu
geratuko da betiko. Urte batzuk
geroago, proxeneta batek Made-
leine bahitu eta heroina emango
dio ihes egin ez dezan. Sexualki
esplotatzen duten bitartean, Ma-
deleinek borroka-arreak ikasiko
ditu.

hitzordduak

Azaroaren 4tik 18ra bitarteko

Tolosako Abesbatza Lehiaketa

Azaroak 4, ostirala. Tolosa,
Santa Klara eliza, 19.30. Kea tal-
de mistoaren kontzertua Tomas
Luis de Victoria musikagilearen
errepertorioan oinarrituta.
Azaroak 5, larunbata. Tolosa,
Leidor, 17.30. 23. Europar Abes-
batza Sari Nagusia. Coro Città
de Roma (Italia), Kup Taldea
(EH), Consono chamber choir
(Alemania), Svenska Kammar-
kor (Suedia), Cantemus Chil-
dren's Choir (Hungria).

Ikastaroa

**Musika ortodoxoari buruz-
ko ikastaroa.** Azaroak 5 eta 6.
Tolosa, Udal Musika Eskola. Gi-
puzkoako Abesbatzen Federa-
zioak antolatuta eta Theodora
Pavlovitch irakasleak eskainita.

Zinea

Bertsolari. Tolosa, Leidor. Aza-
roak 4, ostirala (22.30). Azaroak
7, astelehena (20.30)
Ordezko andereñoa. Aza-
roak 6, igandea. Tolosa, Leidor.
17.00

**Zeinu hizkuntza II Laburme-
traien Jaialdia.** Azaroak 11 eta
12. Tolosa, Leidor eta Topic.
Gainditzenek antolatuta.



Babarrun Jana

Azaroak 6, igandea. Ibarra, San
Bartolome plaza, 14.30. Haus-
poa Kultur Elkartek antolatu-
ta.

Ipuin Kontaketa

Azaroak 12, larunbata. Urki-
zu auzoko Alur Txiki elkarte-
an, 17.30. Zurrumurru antzerki tal-
deak haurrentzat eskainitako
saioa. Kultura bakoitzak mun-
dua ikusteko duen ikuspegia
ipuin bidez kontatuko da.


Erakusketa

Azaroaren 12a bitartean. Tolo-
sako Aranburu Jauregia. Artista
gonbidatuak: Enrike Zeberio

eta Jon Balentziaga. Gorren
komunitatearen VIII Sentsibili-
zazio astea.

Azoka

Azaroak 13, igandea. Beraste-
gi. Azoka Eguna.



Antzerkia

Ipar haizearen kontra. Aza-
roak 18, ostirala. Tolosa, Leidor,
20.30. 10 euro. Ttanttaka. Daniel
Glattauer idazlearen *Gut gegen
Nordwind* eleberrian oinarritua,
Internetez elkar ezagutu duten
bi lagun arteko harremana
du ardatz istorioak. Antzezlan-
a Fernando Bernuesek zuzendu
du, eta Joseba Apaolaza, Kike
Díaz de Rada eta Itziar Atienza
dira aktoreak.

TOPA

**Tolosaldea Osasun Publikoa-
ren aldeko plataforma.**
Hitzaldia. Azaroak 8, asteartea.
Tolosa, Kultur Etxea, 19.30.
Manifestazioa. Azaroak 12, la-
runbata. Tolosa, Triangulo Pla-
za, 12.00.



Orexa. Kultur Hamabos- taldia

Azaroak 4, ostirala. 20.00.
Euskal musikari buruzko saio
didaktikoa, O+Hatz taldearen
eskutik.



Azaroak 5, larunbata. Herri
afaria, Ai ene erromeri taldea
eta DJ Txoko.

Azoka

**III. Euskal Herriko Frisoi Txa-
pelketa.** Azaroak 5, larunbata.
Tolosa, Ferialekua. 09.00-14.00.
**III. Euskal Herriko Frisoi Txapel-
keta.**

Langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Langile eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Pertsonarteko harremanen kudeaketa (adimen emozionala)	2011.11.21	30
Aplikazio informatikoak testuak tratatzeko (word)	2011.11.21	30
Automatismo elektrikoaren muntaia eta konponketa	2011.11.21	60
Fluordun hoztaileen manipulazioa oinarriko ikastaroa	2011.11.28	80
Galdaragintzako produktuen karakterizazioa (Solid Edge)	2011.11.28	80
Txirbil harroketa bidez fabrikatzeko CNC programak egitea (Heidenhain fresatzeko makina)	2011.11.28	80
Zeinu hizkuntza I	2011/11/15	40
Zaindari ikastaroa (Celador)	2011/11/18	82
Haurretxoentzat masajeak	2011/11/21	22
Adinekoen Psikologia	2011/11/21	30

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?
Jo ezazu Tolosaldea GLHBko bulegora.
Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa
Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



Goardiako farmaziak

Ostirala, 4 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra	Asteazkena, 9 Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa	Astelehena, 14 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa
Larunbata, 5 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Osteguna, 10 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	Asteartea, 15 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa
Igandea, 6 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	Ostirala, 11 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Asteazkena, 16 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa
Astelehena, 7 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	Larunbata, 12 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Osteguna, 17 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa
Asteartea, 8 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Igandea, 13 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra	Ostirala, 18 Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Albaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 672 637	Asunzion klinika
Medikua	943 654 737	(larrialdia)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 652 339	San Kosme San Damian
Medikua	943 889 003	geriatrikoa
Baliarrain	943 672 411	Udaltzaingoa
Medikua	943 683 361	Ur eta Argia (Tolargi)
Berastegi-Elduain	943 681 134	Ur zerbitzuak (aberiak)
Medikua	943 672 411	lurreamendi egoitza
Bidegoian	943 683 361	Larrialdia, Suhiltzaileak
Medikua	943 683 361	DYA
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 681 134	Gurutze Gorria
Osasun etxea	943 672 411	Ertzantza
Ikaztegieta	943 653 329	Tolosa Gasa
Medikua	943 653 329	Lizartza
Irura	943 690 720	Medikua
Osasun zentroa	943 650 931	Orendain
Tolosa	943 006 800	Medikua
Anbulatorioa, larriald.	943 006 800	Orexa
San Esteban, hitzordua	943 006 800	Medikua

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com



**SANTA
LUZIA
GARAJEA**

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA



**KOMIKIAK AURKEZTEKO
AZKEN EGUNA:
AZAROAK 18**

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingelesko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Bikote eskalduna baserri edo borda batean alokairuan jartzeko prest. 652 715 800

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m² eta erreforma egiteko. 620 129 295

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldea, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokaldean, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112

Horoskopoa

Azaroaren 4tik 18ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Ohiko indar, borondate eta positibismoa duzu baina oraingoan okerki eta zuhurtziarik gabe ari zara. Lanean egiteke duzuna amaitzea komeni zaizu, izan ere zailtasunak handitu egingo dira.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Zoriontsu bizi zara eta horrela jarraitu ahal izateko onena besteen krisialdietan ez sartzea izaten da. Lanean boteretsuen laguntza jasoko duzu, gizartea ere aldeko izango duzu.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Gastu gehiegi izango dituzu eta arrez-tuta duzunari heldu beharko diozu. Lagunekin edo familia giroan igarotzeko egunak izango dira. Osasun aldetik bainuetxe batera joateak ez dizu kalterik egingo.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Inoiz baino irmoago ekingo diozu, zure helburua lortzea da buruan duzuna. Lanean aldakortasuna izango da nagusi, egoeraz gehiegi fidatzerik ez dago. Maitasunari dagokionean, lasaitasuna da gustuko izaten duzuna baina arriskuei ere aurre egin behar izaten zaie.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Iraganean landutakoak bere fruituak ematen hasi da, egoera beltzei aurre egiteko beharrezkoak suertatuko zaizkizu. Lanari dagokionean lan talde osoko ardura hartzeko gaitasunez arituko zara.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Aldaketa garaia dator. Zure esku ez dauden zenbait egoera azalduko dira. Hala ere, informazioaren jaun eta jabe izanik, nahi duzuna egiteko aukera izango duzu. Buruko minak ere azalduko dira.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Denbora luzean gogoan izango dituzun gertakizun batzuen lekuko izango zara. Pazientzia, sen ona eta erabakitze gaitasuna zure trebezien artean daude, horietaz baliatuko zara gertakizun horietan.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Guztia zure alde jarriko da eta orduan aurre egin beharko diozu, zure esku dagoena menderatu. Ez ezazu ezer zortearen mende utzi. Erlazioak oso emozionalak izango dira, jelsia ere ez da falta izango.



sagitarious

Azaroak 23-Abenduak 21
Garai txarra heltzen denean aurre egitea baino ez da geratzen, pazientzia izatea ona izaten da ondorioak arindu ahal izateko. Negozioei dagokionean, egonkortasunik ezak arazoak sortuko ditu.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20
Patuak ezarritako probak gailenduta energia zure alde egongo da, proposamenak inoiz baino lehenago helduko dira. Familiak lan eta ekonomia kontuetan lagunduko dizu.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Zenbaitetan ondorioak ateratzea zaila izaten da, bizitzak nondik joko duen antzematea ez da erraza izaten. As-katasunez aritzeko aukera duzula eta aprobetxatu beharko zenuke. Yoga erlaxatzeko orduan lagungarria gerta dakizuke.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20
Helburuak eskura dituzu, baliabideak ere badituzu, aprobetxatzea baino ez zaizu geratzen. Ekonomikoki lasaitasunez arituko zara. Baina, hala ere, ez zaitez gehiegi despistatu. Gehiegizko gastuei erreparatu iezaez, maitasunak itsutu oi du eta.



Komikia: Joseba Antxustegiartxe

Gertu...

V I L L A B O N A K O
H I L E T A Z E R B I T Z U A K
B E I L A T O K I eta S U L A B E A

24 H..

943 694 873

